

Egun on, eta eskerrik asko Euskadiko Orkestrari *Musika Gela* ekimenagatik.

Ez dugu inoiz gehiegi azpimarratuko musika onak altxa egiten duela gizakia eta gizadia. Mundu honek oxigenoa bezala behar du musika ona. Gure egitekoa da, Euskadin, Gipuzkoan, neska-mutilak musikarekin zaletzea. Batzar Nagusiek babesten duten *Musika Gela* dela eta, bi ideia azpimarratu nahi nituzke, bizitzea egokitzen ari zaigun aldi honetan:

Batetik, **bakerako musika behar dugula**. Munduak ez du bonba- eta tiro-hotsen beharrik. Munduak bakerako musika behar du. Haur eta nerabeek musika onaren zirrara sentitzen ikastea behar dugu, eta musika klasikoarekin nahiz berriarekin bakea sentitzea eta irrikatzea. Opari handia da gazteak musikan hezteak, eta eginkizun hori betetzen du *Musika Gelak*.

Gainera, **berdintasuna bultzatzen du musikak**. Horra bigarren ideia: Musika bitarteko bikaina da neska-mutilen artean genero-bereizketarik ez egiteko. Argi ikusten da hori Gipuzkoan: 20 MILA ikasle baino gehiago dauzkagu, eta horietatik 12 MILA-tik gora, neskak¹, erdiak baino gehiago. Bestetik, Euskadiko Erkidegoan 35 MILA neska-mutilek ikasten dute musika eta erdiak baino gehiago Gipuzkoako musika-eskola eta kontserbatorioetan dabilta. Ziur nago *Musika Gela* lagungarri garrantzitsua dela.

“Elkarrekin sortu” goiburu ederra du aurtengo *Musika Gelak*. Lan berriak ez dira hutsetik sortzen, musika klasikoaren itzalean baizik. Eta lan onak gai dira pertsonak elkartzeko, herri-sormenari eten gabe eraginez, txikitan musika-sena esnatuz eta heziz. Beraz, aurrera *Musika Gela*.

Donostia, 2023-10-18

¹ Hezkuntza Sailaren datuak, 2022-2023 ikasturtea